



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

## **Euskera eta Kulturako diputatuak urtean Batzar Nagusietara "hiru edo lau" bider joateko konpromisoa hartu dau, bere kudeaketaren barri emoteko**

Euskera eta Kulturako Diputatu Lorea Bilbaok bere Sailak agintaldi honetarako dituen lehentasunak markatu ditu gaur Batzar Nagusien aurrean izandako lehenengo agerraldian. Bere kudeaketa taldeak lagunduta, Bilbaok bere kudeaketaren hiru ardatz nagusiak azaldu ditu, euskerea, kulturea eta kirola, horien euskarri moduan zerbitzu orokorrak erabiliz. Zerbitzu orokorreko egoitza elektronikoa emon gura deuse, eta egoitza elektronikoa esker erraztu egingo da diru-laguntzak emoteko ildoan izapidetzea, beste zerbitzu batzuen artean. Diputatu andreak azpimarratu dauenez, urtean “hiru edo lau” agerraldi publiko egingo ditu Batzar Nagusietan, bizkaitarrei bere sailaren kudeaketaren barri emoteko.

Diputatu andreak adierazo dauenez, datozan lau urteetan bere kudeaketaren helburua “gizarte kohesino handiagoa” lortzea izango da, eta horretarako hizkuntzagaz, kulturagaz eta kirolagaz erlazioautako politikea erabiliko dau. Holan, lehentasuneko konpromiso moduan “bizikidetzaren hobea, garapen pertsonal eta kolektibo handiagoa eta gizarte kohesino handiagoa errazteko beharrezkoak diran hizkuntza, kultura eta kirol arloko politikak aurrera eroatea” azpimarratu ditu. Arlo horri jagokonez, euskera bizibarritzearen aldeko apustua egitea, bizikidetzaren horren aldeko apustua egitea eta gizarte kohesionatua lortzeko ezinbestekoa dala adierazo dau.

Holan, Aldundiak gero eta gizarte elebidunagoa lortzeko daukan konpromisoa eguneroko jardunean euskeraren erabilera finkatzean eta euskerea erabilteko aukerak handituko dituen neurriak bultzatzean oinarritzen da. Diputatu andreak ildo horretan aurrera egiteko aitatu dituen ekimenen artean honek dagoz: hizkuntzaren ezagutza bultzatzea, pertsonen arteko komunikaziorako zubiak eregitzea eta beste erkidego batzuetatik Bizkaia heldzen diran pertsonen euskerea hurbiltzea; komunikazio teknologia barrietan euskeraren erabilera sustatzea; eta gazteei zuzendutako ekintzak, produktuak eta ekimenak garatzea. Sailak bizkaiera indartzearen aldeko apustua be egingo dau, holan euskara batua “aberasteko”.

Lorea Bilbaok administrazio elebidunagoa lortzeko konpromisoa agertu dau, gizartearen eskariei erantzuteko. Adierazo dauenez, Foru Administrazioaren euskalduntze mailea une honetan Aldundiari jagokozan indizeak “baino 10 puntu gorago” dago.

Kulturaren arloan, talde barriak kulturaren transmisioaren, garapenaren eta sustapenaren alde egingo dau behar. Holan, arlo horretan aurrera eroango diran ekimenak Bizkaiko Ondare historikoaren eta kulturalaren aktiboak katalogatzen, berreskuratzen eta balioan jartzen zentrauko dira. Zehatzago esanez, Bilbaok iragarri dau ondare hori ezagutu arazoko daben “kultur eta turismo ibilpideak” diseinatu dirala. Proiektu horreen artean Bizkaiko kobazuloen “digitalizazioa” be badago.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Aldi berean, Bizkaiko gizartearen kultur sorkuntzea eta dinamismoa be sustatuko dira, eta “kultorea ekonomia indartzen dauen elementu moduan” bultzatuko da, aberastasuna ekartzen dauen sorkuntzaren eta kulturaren industriaren ikuspuntutik eta turismoa erakartzeko motore moduan daukan ikuspegitik. Ganera, Bizkaiko kultur azpiegiturak balioan jarriko dira. Horreetako batean, Foru Liburutegian, helburua “literatur sorkuntzako gunea” egiteko asmoa dago.

Kirolaren arloan, kirol jarduna “bizitza kalidatea, integrazinoa eta balioen transmisinoa hobetzeko” baliabide moduan bideratuko da. Beste jarduketa batzuen artean emakumeek kirolaren hainbat eremutan beteten daberen presentzia indartu eta azpimarratuko da, hobeto ikusi daiten, euskeraren erabilera sustatuko da mota guztietako kirol modalitateak egiten dituen artean –“eskolako kirolean batez be”– eta gure bertako kirolen ezagutzea bultzatuko da.

#### BATZARRETAKO TALDEAK

Batzarretako taldeek “zortea” opa deusie Aldundiko Euskera eta Kulturako arduradun barriari, baina aukeraz baliatuz, aldaketa batzuk eskatu ditue. PP taldeko Arturo Aldecoak jakinarazo dau lehenengo guraria, Aldundiak euskeraren kalidatea indartu daian literaturan eta ahozko erabileran. Testuen kalidatean “zorroztasuna” bilatu behar dala adierazo dau.

PSE-EE taldeko Juan Oterminek eskaria egin dau, Aldundia Udalakaz batera aritu daiten kulturagaz eta kirolagaz erlazioautako proposamenak planifiketako orduan. Ganera, gizartean gertatzen ari diran aldaketak be kontuan izatea eskatu dau, bere berbetan “mobikortasunaren, pentsamoldearen... iraultza dan horregaz”, horrek aldaketa handia dakarrelako gizartean erlazioetako dagozan moduetan.

Tonu kritikoagoan, Bizkaiko Ahal Dugu taldeko Asun Merinerok “guztientzat” kultur azpiegiturak sortzea eskatu deutso. “Herriaren, kaleko jentearen, kulturaren inbertidu behar da”. Horretarako, BOS-ek jasoten dituan diru-laguntzak, udal kontserbatorioen egoeragaz alderatu ditu, kontserbatorio horreetan jentea “kanpoan geratzen ari dalako”, plazarik ez dagoalako. Ganera, gero eta emakume eta neska nerabe gehiagok kirola egitea bultzatzea be eskatu dau, eta kirol eskintzea “dobakoa” izatea, bere berbetan “gaur egun ez dalako dobakoa”.

EH Bildu taldetik, Txusa Padronesek “faltan bota dau” hizkuntzaren normalizazioaren aurrean inplikazio handiagoa Bilbo Metropolitarran, bere ustez gune horretan euskerak egoera “larria” bizi dauelako. Kulturaren arloan, gaur egun “oztopoak” dituen kultur ekimen “herrikoietarako” laguntza gehiago eskintzea eskatu dau. Kukatzen adibidea jarri dau. “Jentea kanporatu eta lau urte igaro diranean, orubean ez dago inolango erabilera”, salatu dauenez. Eta kirolari jagokonez, oinarritzko kirolera diru-laguntza gehiago bideratzea eskatu dau, kirol profesionalera gitxiago bideratuz.

#### BESTE IDAZKARITZA BAT AHAL DUGU TALDEARENTZAT

Elsa Pamparacuatro Bizkaiko Ahal Dugu taldeko batzordekideak beteko dau Euskera eta Kulturako batzordeko Mahaiko idazkaritza. Batzar Nagusietako talde barriko ordezkariak aldeko 10 boto jaso



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

ditu, 15 kidek osatutako batzordean. Batzordekide bik boto zuria emon dabe, eta EH Bilduko hiru ordezkariak bozketan ez parte hartzea erabagi dabe. Idazkaritza hori, atzo Ekonomia eta Ogasuneko eta Iraunkortasun eta Ingurune Naturaleko batzordeetan lortutako biei gehitu behar jake.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## **La diputada de Euskera y Cultura se compromete a acudir "tres o cuatro" veces al año a Juntas Generales para informar de su gestión**

Bilbao, a 15 de septiembre de 2015

La Diputada de Euskera y Cultura, Lorea Bilbao, ha marcado hoy en su primera comparecencia en Juntas Generales las prioridades del Departamento para la presente legislatura. Acompañada de su equipo gestor, Bilbao ha dividido su exposición en desgranar los tres ejes fundamentales de su gestión como son el euskera, la cultura y el deporte, utilizando como soporte unos servicios generales a los que quiere dotarles de una sede electrónica, que facilitará la tramitación de las líneas de subvenciones, entre otros servicios. La diputada ha subrayado que anualmente realizará “tres o cuatro” comparecencias públicas en las Juntas Generales para trasladar a vizcaínos y vizcaínas la gestión de su departamento.

La diputada ha indicado que durante los próximos cuatro años su gestión pasará por lograr una "mayor cohesión social" utilizando para ello la política lingüística, cultural y deportiva. Así, Bilbao ha destacado como compromiso prioritario "desarrollar las políticas lingüísticas, culturales y deportivas necesarias para favorecer una convivencia mejor, un mayor desarrollo personal y colectivo, y una mayor cohesión social". En ese sentido, ha asegurado que apostar por la revitalización del euskera es apostar por esa convivencia y resulta fundamental para lograr una sociedad cohesionada.

De esta manera, el compromiso de la Diputación en aras de conseguir una sociedad cada vez más bilingüe es afianzar el uso del euskera en el día a día e impulsar medidas que aumenten las posibilidades de utilización de la lengua vasca. Entre las iniciativas que ha mencionado la diputada para avanzar en esa línea, se cuentan el impulso del conocimiento de la lengua construyendo puentes de comunicación entre las personas y acercando el euskera a quienes llegan de otras comunidades a Bizkaia; fomentar el fomento del uso del euskera en las nuevas tecnologías de la comunicación y el desarrollo de acciones, productos e iniciativas dirigidas a los jóvenes. El Departamento apuesta también por impulsar el euskera vizcaíno, para “enriquecer” así el batua.

Lorea Bilbao ha mostrado su compromiso por conseguir una administración aún más bilingüe para responder a la demanda de la sociedad. Según ella, el índice de euskaldunización de la Administración foral se encuentra “10 puntos por encima” de los índices que actualmente le corresponden a la Diputación.

En el ámbito de la cultura, el nuevo equipo va a trabajar por la transmisión, desarrollo y promoción de la misma. Así, las iniciativas en esta área se centrarán en la catalogación, recuperación y puesta en valor de los activos del Patrimonio histórico y cultural de Bizkaia. En concreto, Bilbao ha anunciado que se diseñarán “recorridos culturales y turísticos” que den a conocer este patrimonio. Entre estos proyectos figura también la “digitalización” de las cuevas de Bizkaia.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Al mismo tiempo, se promoverá la creación y el dinamismo cultural de la sociedad vizcaína y se impulsará la “cultura como elemento tractor económico”, tanto desde el punto de vista de la industria cultural y creativa como sector generador de riqueza, como desde la perspectiva de su potencial como motor de atracción turística. Además, se pondrán en valor las infraestructuras culturales de Bizkaia. En una de ellas, en la Biblioteca foral, la intención es construir un “espacio de creación literaria”.

En el ámbito del deporte se orientará la práctica deportiva como medio para “mejorar la calidad de vida, la integración y la transmisión de valores”. Entre otras actuaciones, se apoyará y se visibilizará la presencia de las mujeres en diferentes ámbitos del deporte, se fomentará el uso del euskera entre quienes practican las diferentes modalidades deportivas -“especialmente en el deporte escolar”-, y se promocionará el conocimiento de nuestros deportes autóctonos.

#### GRUPOS JUNTEROS

Los grupos junteros han deseado “suerte” a la nueva responsable de Euskera y Cultura de la Diputación, pero no han perdido la ocasión para sugerir algunos cambios. Arturo Aldecoa, del PP, ha abierto esta lista de deseos de los grupos con una petición para que este Gobierno potencie la calidad del idioma literario y oral del euskera. Que se busque “rigor” en la calidad de los textos.

Por parte del PSE-EE, Juan Otermin ha sugerido que la Diputación cuente con los ayuntamientos a la hora de planificar propuestas culturales y deportivas, y que se esté al tanto de los cambios sociales que se están experimentando con lo que para él es la “revolución del más, de la movilidad, de la mentalidad...”, un cambio en la forma de interrelación social.

En un tono más crítico, Asun Merinero de Podemos Bizkaia le ha pedido que se creen infraestructuras culturales “para todos”. “Hay que invertir en la cultura del pueblo, de la gente de la calle”. Para ello, ha enfrentado las subvenciones que recibe la BOS con la situación de los conservatorios municipales en donde hay gente “que se queda fuera” por no haber plazas. También, ha solicitado que se fomente el que cada vez más mujeres y más adolescentes se incorporen al deporte, y que la oferta deportiva sea “gratuita”, ya que “ahora no lo es”, según ella.

Desde las filas de EH Bildu, Txusa Padrones ha “echado en falta” una mayor implicación con la normalización lingüística en el Bilbao Metropolitano en donde el euskera vive una situación “grave”. En el terreno cultural, ha pedido que se ofrezcan más ayudas para iniciativas “populares” a las cuales se las pone “obstáculos”. Ha puesto el ejemplo de Kukutza. “Cuatro años después del desalojo, ese solar está sin uso”, ha denunciado. Y en cuanto al deporte, ha pedido que se amplíen las subvenciones para el deporte de base en detrimento del deporte profesional.

#### OTRA SECRETARÍA PARA PODEMOS

La juntera de Podemos Bizkaia Elsa Pamparacuatro ocupará la secretaría de la Mesa de la comisión de Euskera y Cultura. La representante del nuevo grupo parlamentario ha recibido 10 votos a favor,



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

de un total de 15 miembros. Dos junteros han votado en blanco y los tres representantes de EH Bildu han decidido no participar en la votación. Esta secretaría se une así a las otras dos conseguidas ayer en las comisiones de Economía y Hacienda, y de Sostenibilidad y Medio Natural.